



AGINDUA, 2025ko xx(a)ren xx(e)koa, Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuarena, zeinaren bidez hasten baita Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegurako Orientazio, Ekintzailatza eta Berrikuntza Zentroaren Gizarte Kontseilua sortzeko agindu-proiektua egiteko prozedura.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak ezartzen du zer prozedurari lotu beharko zaion Eusko Jaurlaritzaren jardura, izaera orokorreko xedapen orokorrak egiteko; hain zuzen, edozein gairen gainekoak izanik ere, antolamendu juridikora berrikuntzak dakartzaten arau juridikoak dauzkaten xedapenak, eta lege, legegintza-dekretu, dekretu edo aginduaren forma hartzen dutenak.

Prozedura honetan, lege horren 4. artikuluan xedatutakoa hartu behar da kontuan, zeinak ezartzen baitu zein araugintza-kalitatearen printzipiori jarraitu behar dion erregelamenduak egiteko ahalak, orain interesatzen zaigunerako, baita 12. artikuluko xedatutakoa ere, zeinetan zehazten baita xedapen horien gairen gainean eskumena duen sailburuaren aginduz hasiko dela xedapen orokorrak egiteko prozedura. 13. artikulua, berriz, prozedura hasteko agindu horretan jaso beharreko edukia ezartzen du.

Bada, hori kontuan hartuta, hasteko agindu honek puntu hauek garatzen ditu:

Arauaren xedea eta helburua.

Next Generation EU aldi baterako tresnaren eta haren elementu nagusia den Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren barruan, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren barne hartuta dago 23. osagaia, "Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusiborako politika publiko berriak" izenekoak, zeinak 5. Inbertsioan "Gobernantza eta enplegua aktibatzen laguntzeko politikak bultzatzea", Enplegurako Orientazio, Ekintzailatza eta Berrikuntza Zentroen sare baten jarduerak eratu eta abian jarri nahi dira.

Enplegu eta Lan Kontuetarako Konferentzia Sektorialak 2021eko apirilaren 28an egindako LXXIX. bileran onartu zuen Enplegurako Orientazio, Ekintzailatza, Laguntza eta Berrikuntza Zentroak sortzeko protokoloa, aurreikusita Zentro bakoitzean Gizarte Kontseilu bat egotea, kontseilu hori izanik plangintza eta parte-hartze sozialerako organoa eta zentro horien titularra den administrazioa, aldiz, burua. Gainera, zentroaren administrazio publiko titularra izendatuko da zuzendari.

Ilido horretatik, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko maiatzaren 15eko Ebazpenak, zeinaren bidez kalifikatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegurako Orientazio, Ekintzailatza eta Berrikuntza Zentroa, honako hau xedatzen du 6. apartatuan: "Enplegurako Zentroak Gizarte Kontseilu bat izango du, gizarte-plangintzako eta -partaidetzako organo titular gisa, eta haren titular den administrazio publikoa izango du buru. Enplegurako Zentroaren zuzendaritza haren titularra den administrazio publikoak izendatuko du."

Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegurako Orientazio, Ekintzailatza eta Berrikuntza Zentroko Gizarte Kontseilua sortu beharrak erantzuten dio gizarte-plangintzako eta -partaidetzako organo gisa kide anitzeko organo bat izateko legezko eskakizunari, eta organo horren titularra den administrazioa izango da haren buru.

Lege-eskakizun horrez gain, Gizarte Kontseiluaren sorreraren azken helburua da gizarte-, lanbide-, teknologia- eta enpresa-esparruak sakonago lotzea Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegurako Orientazio, Ekintzailatza, Laguntza eta Berrikuntza Zentroaren zereginarekin.





Bestalde, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren helburuak dira, bere estatutuen arabera, lan duina izateko eskubidea erabat garatzen laguntzea eta langileen enplegarritasuna bermatzen, enpresen eskakizunei egokitutako langile-premiak asetzen eta gizarte- eta lurralde-kohesioa bultzatzen efizientziaz laguntzeko moduko lan-merkatua eratu dadin ahalbidetzea. Estatutueta ezarritakoa ez ezik, Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legean eta Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legean ezarritakoa ere bete behar du.

Aipatutako araudiaren arabera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari atxikiko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegurako Orientazio, Ekintzailatza eta Berrikuntza Zentroko Gizarte Kontseilua, ordezkariatza handieneko enpresari-elkarteen eta sindikatuen planifikazio- eta partaidetza-organo gisa, hiruko eran eta modu paritarioan.

Beraz, organo horren osaera eta funtzioak sortzeko eta arautzeko balio du arauak, azken batean.

Proposatutako araudiaren edukia.

Agindu-proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegurako Orientazio, Ekintzailatza eta Berrikuntza Zentroko Gizarte Kontseiluaren sorrera, osaera eta funtzionamendu-arabidea arautzen ditu, besteak beste.

10 artikulua ditu, honako hauek arautzen dituztenak, hurrenez hurren: xedea; izaera eta adskripzioa; egoitza; eginkizunak; osaera; presidentetzaren funtzioak; idazkaritzaren funtzioak; izendapenak; agintaldiaren iraupena; funtzionamendua (deialdia eta erabakiak hartzea).

Bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Azaldu den bezala, ekimen honen benetako oinarria Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko maiatzaren 12ko Ebazpenaren seigarren apartatua dago (2022ko uztailaren 29ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua). Bertan kalifikatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegurako Orientazio, Ekintzailatza eta Berrikuntzarako Zentroa, eta, horrela, Enplegurako Orientazio, Ekintzailatza eta Berrikuntzarako Zentro Publikoen Sarean sartu zen. Sare hori, halaber, Enplegurako Orientazio, Ekintzailatza, Laguntza eta Berrikuntza Zentroak sortzeko protokoloan aurreikusi zen, Enplegu eta Lan Kontuetarako LXXIX. Konferentzia Sektorialak, 2021eko apirilaren 28an egindako LXXIX. bileran onartutako protokoloa.

Kide anitzeko organoak arautzen dituen Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 18.6 artikuluari jarraikiz, sortu nahi den kide anitzeko organo horren osaera ez denez aurkezten Administrazio Orokorreko zenbait sailen edo Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeen ordezkariak, sorrera-arauak sailean sortzen den titularraren agindu-forma izan behar du.

Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak du eginkizun honetarako eskumena gaiaren arabera, lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoaren ondorioz, zeinaren bidez sortu, ezabatu eta aldatzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailak eta finkatzen baitira sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak.

Azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuak ezartzen du Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala, eta xedatzen du Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetzak beteko dituela sailari esleitutako eginkizunak, enplegu-politikaren, enplegurako prestakuntzaren eta Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarte Inklusiorako Euskal Sistemaren



arloan.

Halaber, Enplegu Zuzendaritzak izapidetuko du Gizarte Kontseilua sortzeko agindu-proiektua egiteko prozedura, hari baitagokio enpleguari, prestakuntzari, diru-sarreraren bermeari eta gizarte inklusioari buruzko araudi-proposamenak egitea.

Ondorioak ordenamendu juridikoan.

Aztergai dugun arau-testuak kide anitzeko organo berri baten sorrera arautuko du (Enplegurako Orientazio, Ekintzailatza, Laguntza eta Berrikuntza Zentroaren Gizarte Kontseilua), eta, horrela, antolamendu juridikoa berrituko da.

Ez dio eragingo indarrean dagoen ezein arauri. Ez du araurik indargabetzen edo aldatzen.

Eragin ekonomikoa eta aurrekontu-eragina.

Abenduaren 22ko 6/2022 Legearen 15.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, dagokion memoria ekonomikoa egingo da, non aztertuko baita etorkizuneko araua aplikatzeak dakarren kostua eta EAEko Aurrekontu Orokorretan duen eragina. Hasieran, kide anitzeko organo hori sortzeak ez du gasturik ekarriko Lanbideren aurrekontuaren kontura.

Egokitzeak jotzen diren izapideak eta txostenak.

6/2022 Legearen 13.1 artikuluko e) apartatuan xedatutakoari jarraikiz, prozedura hasteko aginduak zehaztu behar du zein diren bidezko iritzitako izapide eta txostenak, proposatu den araudiaren gaia eta edukia aintzat hartuta. Adierazitakoa kontuan harturik, aurreikusitako dekretu-proiektua egiteko eta onartzeko hasieran eskatzen diren izapideak eta txostenak aipatuko dira jarraian:

1.– Prozedura hasteko agindua egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta “Legesarea”n argitaratzea.

6/2022 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, prozedura hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da, eta, argitaratzearekin batera, automatikoki jakinaraziko zaie sail guztiei, hala badagokio, ekimenaren bidezotasunari eta egokitasunari buruzko oharra egin ditzaten.

Era berean, prozedura hasteko agindu hau ezagutza partekatuko “Legesarea” lankidetzaz espazioan argitaratuko da, bat etorri Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakiaren lehenengo apartatuaren 1. puntuan xedatutakoarekin. Xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko jarraibideak onartzen ditu erabaki horrek.

2.– Testua idaztea.

Agindu-proiektuaren testua agindu honen edukia aintzat hartuta idatziko da, eta lortu nahi diren helburuei ondoen egokitzen zaizkien aukerak hartuko dira kontuan, beharraren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioei jarraikiz eta aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren kontsulten emaitza aintzat hartuz, 6/2022 Legearen 14.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Testuan behar bezala azaldu beharko dira dekretu-proiektua egiteko erabakia justifikatzen duten arrazoiak eta oinarri juridikoak, 6/2022 Legearen 14.2 artikuluan eta Gobernu Kontseiluak 2017ko abenduaren 12an hartu zuen Erabakiaren lehenengo apartatuko 1. puntuan ezartzen duen moduan (arau-xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzeko



erabakia; 2017ko abenduaren 15eko EHAA, 238. zk.).

Egingo den testua ele bitan idatzi beharko da, aldez aurreko onarpenera jaso eta izapidetu aurretik. Araua idazteko prozesu osoan, hizkuntza-bertsioak landu bitartean, hizkuntza bien arteko berdintasuna bermatuko da, eta hizkera ez-sexista eta inklusiboa erabiliko da, 6/2022 Legearen 14.5 artikulua ezartzen duen moduan eta Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 14an hartu zuen Erabakian ezarritakoa aplikatuz, zeinaren bidez horrek neurriak onartu baitzituen lege, legegintzako dekretuaren, dekretuaren edo aginduaren forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzatan idazteko.

3.– Generoaren arabera eraginaren txostena.

Ez da beharrezkoa izango generoaren arabera eragina ebaluatzeko txostena egitea, 1/2023 Dekretu Legegileak onartu zuen Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 20. artikuluan eta Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiak xedatzen dutenaren arabera, zeinaren bidez zenbait jarraibide onartu baitziren generoaren arabera eraginaren aurreko ebaluazioa egiteko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko. Jarraibide horietan zehazten da ez dela beharrezkoa txosten hori egitea, funtsean antolaketa-izaera duten arau-proposamenetan, kasu honetan bezala.

4.– Arau-eraginaren azterketaren memoria.

6/2022 Legearen 15.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, espedientea izapidetzeko eskumena duen organoak arau-eraginaren azterketaren memoria egingo du, nahitaez, aipatu xedapenean aurreikusitako moduan eta bertan aipatutako edukiak kontuan hartuta.

5.– Justifikazio-memoria eta memoria ekonomikoa.

Beharrezkotzat jotzen da prozedura izapidetzeaz arduratzen den organoak azalpen-memoria bat egitea, proposatzen den organoa sortzeko beharra egiaztatze eta dagokion edukia zehazteko. Bestalde, sortu beharreko organoak ez duenez ekarriko Lanbideren aurrekontuaren kargura finantzatu beharreko gasturik, ez da beharrezkoa memoria ekonomiko espezifikorik egitea.

6.– Txosten juridikoa.

Beharrezkotzat jotzen da Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren Aholkularitza Juridikoak txosten juridikoa egitea, 6/2022 Legearen 15.4 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

7.– Araudi-proiektuaren alde aurreko onarpenera eta egoitza elektronikoan zein "Legesarea"n argitaratzea.

Dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik, proiektuak Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko sailburuaren onarpenera jaso beharko du, 6/2022 Legearen 15.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Aldez aurreko onarpen-aginduekin batera, onartutako testu elebiduna eta aurreko apartatuetan adierazitako gainerako dokumentuak aurkeztuko dira. Horiek guztiek osatuko dute espedientea.

Aldez aurretik onartuta dagoen xedapenen testua Euskal Autonomia Erkidegoko



Administrazio Orokorren egoitza elektronikoan argitaratuko da, bereziki 6/2022 Legearen 16.3 eta 17.3 artikuluetan adierazitako ondorioetarako, kontuan hartuta argitalpen horren data izango dela aldi berean bideratzen diren izapide guztiak betetzeko epearen hasiera.

Hala aldez aurreko onarpen-agindua nola araugintza-proiektua “Legesarea” lankidetzagunean emango dira argitara (2010eko abenduaren 28ko Erabakiaren lehenengo apartatuaren 2. puntua).

8.– Entzunaldia eta jendaurreko informazioa.

Araudiaren testuak aldez aurreko onarpena jaso ondoren, entzunaldi eta informazio publikoaren izapidea egin beharko da, 6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitakoa; horrekin batera, herritarren parte-hartzeari buruzko baldintza beteko da, herritarrei aldez aurretik kontsulta egiteko beharrik gabe; izan ere, hori bat dator 6/2022 Legearen 11.4 artikuluan, Gobernu Kontseiluak 2017ko abenduaren 12an hartu zuen Erabakiaren (arau-xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzekoa) lehenengo apartatuaren 5. puntuan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 133.4 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoarekin.

Jarraitutasunez edo beste une batean egitea eskatzen ez duten izapideekin batera egingo dira entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak, biak epe berean, aldez aurretiko onespena jaso duen testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik aurrera.

9.– Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen parte-hartzea eta haiei kontsulta egitea.

Testu arauemaile honek ez du bete behar beste administrazio batzuek parte hartzeko edo haiei kontsulta egiteko izapidea, proposatzen den erregulazioak ez baitie zuzenean eragiten beste administrazio batzuei, bat etorri Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 18.1 artikuluan xedatutakoarekin.

10.– Nahitaezko txostenak eta irizpenak.

Prozedura instruitzean, dagozkion nahitaezko txostenak eskatuko dira, izapide horiek arautzen dituzten xedapenek agintzen duten unean eta moduan, arau-xedapenak egiteko gaur egun indarrean dagoen prozedura gogoan hartuta. Besteak beste, honako hauek bildu behar dira:

A.– Aldi berean eskatuko diren txostenak, 6/2022 Legearen 16. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikako Sailburuordetzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, hala xedatuta baitago Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan eta azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 3. artikuluan. Dekretu horren bidez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen da.

- Gobernantza Publiko, Administrazio Digital eta Autogobernu Saileko Herritarrentzako Arretaren eta Administrazio Berrikuntzaren txostena, hala xedatzen baita sail horren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 21.1.c) artikuluan.

- Enplegu Politika Publikoen Kontseiluaren txostena, hala xedatuta baitago Enpleguari

buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 71.1.a) artikuluan.

B.– Aurreko izapideak amaituta, funtsezko txosten hauek ondoz ondo bete beharko dira:

- Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiaren legezkotasun-txostena, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 11.1.d) artikuluan ezarritakoaren arabera.

6/2022 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera.

- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomia- eta arau-kontrolaren txostena, bat etorritik Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginean (urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua), urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan (EAEko barne-kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea garatzen dituen).

11.– Amaierako espedientea eta prozeduraren memoria laburra.

Amaierako espedientea dokumentu hauek osatuko dute: 6/2022 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitako dokumentazioa (hasteko agindua; proiektua aldeztetik onartzeko agindua, testua eta guzti; arauaren eraginari buruzko memoria; egindako azterlanak eta kontsultak; eta nahitaezko txostenak eta irizpenak, eta, horiei atxikita, izapidetzean zehar idatzi diren xedapenen testu artikulatu guztiak, argi identifikatuta, bakoitza zein unetan idatzitakoa den zehaztuta), eta bertan sartuko da prozedura osoaren memoria labur bat, aipatutako 24. artikuluen 2. eta 3. apartatuetan adierazitako edukiarekin.

12.– EHAAr argitaratzea.

Araua onartu ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, bi hizkuntza ofizialetan, indarrean sartzeko eta ondorio juridikoak sortzeko, 6/2022 Legearen 29. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Europar Batasunaren aurrean egin beharreko izapideak.

Ez da ikusten Europar Batasunean inolako izapiderik egin beharrik; lehen aipatutako Orientazio, Ekintzailatza Laguntza eta Berrikuntza Zentroak sortzeko Protokoloak, Enplegu eta Lan Galetarako LXXIX. Konferentzia Sektorialak 2021eko apirilaren 28an egindako bileran onartuak, ez du zehazten Europar Batasunean geroagoko izapiderik egin behar denik.

Idazteko sistema.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan xedatzen duena betetzeko, IZO Itzultzaile Zerbitzu Ofizialera joko da, bat etorritik apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuarekin, zeinaren bidez agindu baitzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko.

Prozedura Tramitaguneraren bidez izapidetzea.

“Tramitagune” aplikazio informatikoaren bidez izapidetuko da prozedura, bat etorritik Gobernu Kontseiluaren erabaki hauetan xedatutakoarekin: 2017ko abenduaren 12ko Erabakia, arau-xedapen orokorrak egiteko prozeduran izapidetze-jarraibideak onartzen dituen, eta 2012ko azaroaren 27ko Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozeduraren izapidetze elektronikorako jarraibideak onartzen dituen.



Horregatik, eta azaldutako aurrekari guztiak oinarri hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegurako Orientazio, Ekintzailatza eta Berrikuntza Zentroko Gizarte Kontseilua sortzeko agindu-proiektua egiteko prozedura hastea.

Bigarrena. – Enpleguaren Zuzendaritza izendatzea arestian adierazitako proiektua izapidetzeko organo arduradun.

Hirugarrena. – Hasteko agindu honen berri ematea egoitza elektronikoko iragarki-taulan, baita “Legesarea” izeneko lankidetzagunean ere, bat etorriz 6/2022 Legearen 13.2 artikuluekin eta Gobernu Kontseiluak 2017ko abenduaren 12an hartu zuen Erabakian (arau-xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzekoa) xedatutakoarekin.

Laugarrena. – Azterlanak, txostenak eta kontsultak egitea, araua egiteko eta haren egokitasuna eta legezkotasuna ziurtatzeko.

Vitoria- Gasteiz,

MIGUEL TORRES LORENZO

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua